

QUOSQUE TANDEM


Alberto BARANDIARAN

Oteiza Fundazioa kolokan

Duela hiru urteko berri kultural nagusietakoa izan zen: Jorge Oteizak bere lan guztiak Nafarroari ematen zizkion, horren truke museoa eta fundazioa egiteko Altzuzan (Eguesibar). Hiru urteren buruan geldirik dago proiektua, Saínz de Oiza arkitektoak egindako aurreproiektuaren planoak baino ez daude, eta urtebete darama patronatuak bildu gabe. Nafarroako Gobernuak dio Oteizak estatutuak sinatu ezean ez dagoela zer eginik, baina artistaren lagunek borondate eskasa leporatzen diete agintariei.

Oteiza Fundazioaren geldialdiak proiektua bera arriskuan jarri eta kezka sortu du bultzatzaileen artean

Nafarroako Gobernuarekin akordioa sinatu eta hiru urtera, Oteiza Fundazioa ezerezean gelditzeko arriskua artistaren kuboen mugak zedatzen dituzten burdinak bezain ukigarria da. Eskultorearen filosofia aztertu eta zabalteko sortua, bere lanen bilduma osatzeko pentsatua, liburuetan jorratutako ideiak gorpuzteko amestuta..., baina kolokan. Urtebete darama fundazioaren oinarria den patronatuak bilerarik egin gabe. "Zerbait mugitu behar dugu berehala, Nafarroa fundaziorik gabe



Jorge Oteiza, fundazioaren inguruko sinadura egin zen eaunean / Ara.: LACALLE

QUOSQUE TANDEM

geldituko da bestela". Artista oriotarraren inguruko hurbilen hitzak dira.

Fundaziorik gabe gelditu zen Nafarroa joan den urrian, Koldo Azpiazu eskultorea Aita Donostiaren oroitariari eginiko kalteengatik izan zuen epaiketarik libre eta kargurik gabe atera zenean. Hase-rearen aurretik hitzartu eta mintzatutako guztiari gailendu zitzaion Oteiza eta fundazioa bertan behera utzi eta arte-lan guztiak Zarautzera eramatea erabaki zuen. Aukerak, jakina, txiribitak aterarazi zituen Gipuzkoako herrian, eta lursailak bilatzeko gestioak ez ziren berandutu. Artistaren kontseilariaren erreguak eta legalki egin ahal izateko zeuden zailtasunek - Nafarroako Gobernuarekin sinatu zuen akordioa zela eta- atzera eginarazi zioten.

Haserraldia ez zaio erabat baretu, oriotarrarentzat oso latzak izan ziren gertaeren -armak izateagatik epaiketa eta isuna, Koldo Azpiazuri epaiketa bera- inguruan agintari nafarrek erakutsi zuten interes eskasa ez duelako ahaztu, baina ezin esan hori denik Euskal Herriko artista eta intelektual askoren itxaropena piztu zuen erakundearen geldialdiaren arrazoia. Patronatuaren geldotasuna da kezka nagusia. Sei pertsonak osatua da fundazioko organo goren hau: gobernuko bi ordezkari -Juan Cruz Alli eta Gabriel Urralburu-; Oteizak izendaturiko bi artista -Xabier

Morras eta Pedro Manterola-, eta Ikastolen Elkartetik bi ordezkari -Begoña Errazti eta Jaione Apalategi-. 1993ko abenduko 22an bildu zen azkeneko aldiz eta orduan aurkeztu zen Javier Sainz de Oiza arkitektoak museorako egindako aurreproiektua eta fundazioa bera "berpizteko" hainbat ekitaldi kultural. Hortik aurrera deus gutxi. Ez da aurreproiektuari buruz erabakirik hartu, ez da ekitaldirik egin, eta fundazioa lo-zorroan dago, ezeren zain. Zergatik horrelako etena?

ESTATUTUAK TRABA FINEAN

1992ko urtarrilaren 19an patronatuak egin zuen lehendabiziko bileraren ondotik azkenera bitarte ia gai bakarra izan da mintzagai: estatutuak. Bi urte luze joan dira moldatze lanetan, eta zenbait bileratan horrekin tratatzeko arriskua azpimarratu baldin bada ere, horixe izan da traba, izan ere. Oteizak ez ditu oraindik estatutuak sinatu, eta hori argudiatu dute Nafarroako Gobernuo kideek aurrera zergatik ez den egin arrazoitzeko. Javier Markotegi Kultura kontseilariak eskultorearen borondate ezari leporatu dio, EGUNKARIAREN galderari erantzunez, fundazioa geldirik izatearen erantzukizuna. "Fundatzailearen borondatea errespetatu behar da, bera baita erritmoa markatzen duena. Gobernua lasterrago

eta mantsuago joaten ahalegintzen baldin bada, arazoak sor daitezke”.

Ez da nekez azaltzekoa Oteizaren jarrerara, ez behintzat eskultorearen pertsonalitatea ezagututa. “Paper guztiak, Jorgeri, bost axola”. Eskultorearen konfiantzazko lagunek garbi daukate soluziobidea. “*Impasse* honetatik ateratzeko modu bakarra proiektua mugitzea da. Jorgek nahikoa izanen luke txatxu bat pala batekin Altzuzako etxe ondoko lurra mugitzen ikusiko balu. Horrekin paper guztiak sinatuko lituzke. Presa dauka, presa handia, eta ekintzak nahi ditu, ez paperak”. Horregatik, proiektuan itxaropen handiak paratu dituztenek ez dute nahi, inondik inora, protokolo hutsezko gauzek dena geldiaraztea, eta patronatuaren bilere-tan frankotan aipatu izan da estatutuen erredakzioa malgutasunez egin beharra, fundazioak berak markatuko lukeela jarraitu beharreko bidea.

Nafarroako Gobernuak Oteizaren borondate ezari leporatu dio fundazioa geldirik izatearen erantzukizuna.

Izan ere, interes handiak baitira tartean. 1992ko otsailaren 4an Iruñeko Diputazioan sinatu zen hitzarmenaren

arabera, artistak bere obra Nafarroari ematearen truke, Alzuza herrian kokatuta egongo zen museo bat eta fundazioa bultzatuko zukeen Nafarroako Gobernuak. Fundazioaren bi helburuak zehaztu dira estatutuetan: Jorge Oteizaren eskultura lan guztia eta horri buruz dagoen material teorikoa nahiz ikus-entzunezkoa eta bibliografikoa sailkatu eta biltzea, eta bere lana kontserbatu eta zabaltzea bai gure herrian bai nazioartean ere, alde batetik, eta ‘gizaki berriak’ sortzeko haurren hezkuntza estetiko eragingo lukeen egitasmoa garatzea, hezitzailearen hezkuntza estetikoaren bitartez, bestalde-tik.

MUSEO BAINO GEHIAGO

Baina, honekin batera, gizartean eragin soziala izan beharko zuen fundazioak, eta orain arte egindako bilere-tan frankotan aipatu da fundazioaren bi alde-en arteko bereizketa. Alegia, fundazioak Altzuzan kokatu den museoa baino zerbait gehiago izan behar duela. Museoa, Oteizak utzitako lanaren erakustokia izateaz gain, lan honi buruzko ikerketa zentro nagusia izango litzateke, datu eta material guztien bilgune, eta aditu ororen ezinbesteko kontsulta-leku. Baina museoa, finean, eta Oteizak gorroto die museo hutsei. Ondoan, ia gorputz autonomo gisa, artistak

hainbat urtetan aldarrikatutako euskal pentsamendua sakondu eta jorrazteko elkarte sortzea da artistaren ondokoen gogo, Guggenheim erraldoiaren kontrapisua, euskal nortasuna ezaugarri izango lukeena. "Guggenheim Oteizarik gabe hankamotz jaio baldin bada, elkartearekin bi hanka galduko ditu", diote fundazioan. Honen guztiaren filosofia zedarrizteko proiektua Jose Maria Sanchez Carrion 'Txepetx' hizkuntzalariari enkargatzeko asmoa dago, baina badira dagoeneko zenbait ideia. Denak gorpuzteko Fundazioaren Adis-kideen Elkarte osatuko litzateke, fundazioaren beraren oinarrietako bat.

Izen ezagun askoak daude elkartearen atzean, denak aitzindariak euren arlotan: Eduardo Gil Bera, 'Txepetx', Xabier Idoate, Juan Antonio Urbeltz, Jose Angel Irigarai, Bernardo Atxaga, Pablo Antoñana... Iruñean izango luke egoitza, eta gogo besterik ez bada ere, Euskal Jai Alde Zaharreko pilotaleku zaharra aipatu da egoitza gisa. Ikastaroak, mintzaldiak, jardunaldiak..., fundazioaren muina gordeko litzateke bere baitan. Kontuan harturik eskultoreak frontoia eta pilotari buruz egin dituen artikulu eta ikerketak ez litzateke egoitza txarra: frontoi zahar bat Oteizaren ideia batentzat berreskuratuta. Elkarterik gabeko fundazioa ez litzateke Oteiza Fundazioa, baina fundaziorik

gabe ez dago elkarterik, bistan denez, eta denak zain daudela dirudi. Duela gutxi, artistaren urtebetetzea zela eta, bazkarira gonbidatu zituzten elkarteko kideek Oteiza bera, egitasmoari eutsi diezaion animatzeko.

Oteizak gorroto die museo hutsei, eta euskal pentsamendua sakondu eta jorrazteko elkarte sortzea da artistaren ondokoen gogo.

Baina edonor desanimatzekoa izan da orain arteko ibilaldia.

Hasieran aipatu zen egitasmoa martxan jartzea ez zela erraza izango, baina deus gutxi aurreratu da hiru urtetan. Epe guztiak gairidurik -Nafarroako Gobernuarekin sinatutako akordioan aipatzen zen urtebeteko epea zegoela estatutu berrietarako eta baita eraikinerako ere-, Nafarroako Gobernuak dauka erantzukizunaren parte nagusia. Fundazioaren Patronatuaren bilerara eskatu zaio joan berri den urtean behin eta berriro, eta ez da deialdirik izan. Halaber, nahiz eta Sainz de Oiza arkitektoak Museoaren aurreproiektua iaz aurkeztu zuen, ez zaio aurrera egiteko enkargurik egin, eta ezarian amatu da dena. Gobernutik azpimarratu

dute artistaren onespenerik gabe ez dela ezer egingo, baina honek ekintzak nahi dituela errepikatzen dute bere lagunek, interesa erakutsiko luketen keinuak.

OZTOPO POLITIKOAK TARTEAN

Garbi dago Nafarroako agintariek ez dutela asmatu oriotarrekiko tratua-ekin, perspektiba falta handia izan dela. Sainz de Oizaren proiektuak ilusio handia egin zion eskultoreari, eta ikusi eta berehala, ohikoa duen lan egiteko zirrara elektrikoa izan zuen. Artistaren inguruko iturriek ziurtatu dutenez, borondatea eduki izan balitz, estatutuak sinatuta eta eraikina hasi berria zatekeen.

Beste gisako oztopoen mamua ere askoren gogoan daude. Nafarroaren Urrezko Domina jaso zuenean Oteizak egin zuen diskurtsoa eta fundazioa bera ez dira, ezta gutxiagorik ere, UPNko personaia askoren gustukoak izan. Oteizak berak garbi aipatu zuen 'quosque tandem...' liburuaren azken edizioaren aitzin-solasean: '(...) Anti-euskaldun eta kultural-

ki atzerakoa den Nafarroa ofizial honek berehala ulertu zuen nire Fundazio-museoa (...) izango zela kultura aurrerakoi eta euskalduna sartzea Nafarroa nahastu atzerakoiaren saihetsean(...)'. Ez da Oteiza hori pentsatzen duen bakarra, eta politikoki nahasia izan den azken urte honek ere zerikusirik izan duela susmatzeko ez da analista politikoa izan behar. Juan Cruz Allirekin batera, politikarien artean Gabriel Urralburu izan da fundazioaren bultzatzaile nagusienetakoa, eta ez da urte apartekoa izan beraiendako.

Ezin-ikusiak eta gora-behera politikoa baino indartsuagoa behar luke, ordea, jende garrantzitsu asko atxiki duen



proiektuak. Sainz de Oiza arkitektoa interes handia agertu zitzaion fundazio-kideei museoaren proiektuaren inguruan, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), Juan Garcia Blasco errektorearen bitartez, berdintsu Fundazioarekin batera Jorge Oteiza Mintzaira Artistiko Konparatuen Zentroa / Institutua osatzeko egin zitzaion proposamenaren inguruan.

Errua Oteizari leporatzea erraza litzateke, baina ez logikoa. Ez da logikoa eskuzabal ez izatea Nafarroarekin batera eskuzabal oso izan denarekin. Ez aurrerapausoak -ikuspegi estu ba-

tek mugatzen duena baino harantza-go- ez ematea jakinik urrats batek abia da bizia eman liezaiokeela prozesuari. Ez bat-batean interesik ez azaltzea erresumako tronpeta guztien laguntzaz iragarri zen akordio bati buruz. Ez euskal artistarik handienetakoaren bizitzako lehen garaipena izan zitekeenarekin jokatzeko. "Jende askoren go-go dago proiektuarekin uztarturik", azpimarratu dute aipatu iturriek, "eta aurrera ateratzen ez bada, azaleratuko den etsipena irabaziko dutena baino gogorragoa izango zaie".

Kubo erromanikoa

Sainz de Oiza arkitekto nafarrak Altzuzan eraikiko zen museorako egindako aurre-proiektua da orain arte fundazioak sortu duen ondorio ia bakarra. 1993ko urrian aurkeztu zizkion planoak fundazioari, eta bertako kideen oso gustukoa izan bazen ere, horretantxe, aurreproiektu hutsean gelditu da, nahiz eta horrekin aurrera egitea izan zitekeen artista oriotarra proiektuarekin berriro ilusionatzeko modu bakarra. Izan ere, harreman estua izan zuen arkitektoarekin eraikinaren plano eta ideien inguruan, eta ia bien artean adostutako proiektua dela esan daiteke. "Hau eraikiko balitz, Jorgek ez luke ezta sinestu ere egingo" aipatu dute fundazioan, "bere bizitzaren lehendabiziko garaipena izango litzatekeelako".

Erriberako arkitektoaren ideia Oteizare beraren kontzeptu artistikoetan oinarrituta dago nabarmen. Kuboak dira oinarria, eta erdiko espazioak eraikinaren bi solairuak batzen ditu. Argiak zeharkakoak dira proiektuan, eraikin erromanikoetan gertatzen den bezala. Alegia bilduak, abegikorrak. Ondoan gela txikiak daude, bigarren mailako erakusketak paratzeko, baita galeria luze bat ere. Egun Oteizak herrixkan duen etxearen ondoan eraikiko litzateke, atxikia, eta berarekin komunikatzeko beirazko galeria bat erabiltzen du proiektuak. 2.600 metro koadroko zabalera hartzen du eraikitako eremuak, eta 500 milioi pezeta inguruko kostua izango luke.

Etxean, bestalde, hainbat lan egin eta altzariak eraman zituen Nafarroako Gobernuak, eta idazkari bat izendatu zen -Carlos Martinez Moreno, Hezkuntza eta Kultura Sailekoa- lehen sailkapenak egiten hasteko. Hau 1993ko hasieran hasi zen lanean, eta artistaren lanaren inguruko azterketa bibliografikoa burutu zuen, bilketa lana egiteko. Halaber, hainbat arte galeriak oriotarraren lanaren inguruan egindako erakusketen katalogoak bildu, eta idazkiak sailkatu egin ziren. Oteiza Altzuzara joan zedin bikote euskaldun bat ere bilatu zen, baina dena agotz galda izan zen, etxean berrikuntzak eginda ere, ez zelako inoiz joan Itziarrekin batera azken hamabost urteetan erabili duen etxera. Zarautzen bizi da geroztik

Museoaren inguruko gogoetak ere ez dira gutxi, eta babes publikoa ezezik diru pribatua ere bila litekeela aipatu da behin baino gehiagotan. Ez litzateke horretarako aukera faltarik izango, eta enpresari batzuek euren interesa azaldu dute fundazioaren gainean. Finantzabide gisa ere aipatu da eskultorearen artelanen salmenta, kontuan hartu behar delako original baten sei kopia egin daitezkeela.